


Funtsezko jarduerak



Gure enpresa kooperatiba bat da eta taldelanagatik egiten dugu apusturik nagusia. Bost bazkideok lanak banatuta ditugu eta horrela funtzionatzen du egunerokotasunean gure enpresak:

Sentsoreak pixkanaka erosten ari gara, ahalik eta azkarren hedatzeko Donostiako aparkaleku guztietara eta gero Euskal Herri osora. Hor Ikerrek, finantzen arduradunak, eta Manexek, sentsoreen instalakuntzaren koordinatzaileak hartzen dute parte.

Energia berriztagarritik lortutako elektrizitatea ondo doala ziurtatzeko eta Goi Enerrekoekin hitz egiteko ardura du Ainhitzek.

Baina azken orduan sorturiko beste kargu berezietan ere ibiltzen da, erosleen edo udalaren eskaera berezietan, edo prentsako elkarrizketetan adibidez, Ainhitzek eratzuten du.

Sarreran egoten da Beñat, telefonoa aurrean duela, bezeroen deiak erantzuten edo norbaitek bileraren bat badu, argibideak ematen... Bezeroen arretaz eta giza harremanez arduratzen da azken finean.

Eta azkenik, Oier subkontratatutako enpresarekin batera ibiltzen da marketin eta aplikazioen bileretan eta egiten diren ekintzetan. Enpresak ideiarekin bat duenean, Oierrekin hitz egin eta gero bazkideek erabakiren bat hartzen dute. Aplikazioaren diseinua enpresak egiten duen arren, azken hitza bazkideena da.